


Elkarte 49

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2018ko Abendua



Gogoratu ...

ARABA

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 96-98 behea
Tel. eta Faxa: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBAO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

ENPLEGU ARRUNTA, ESKUBIDE

%100ean bizirikaturako paperean inprimatua

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.

GIPUZKOA

- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarteak.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarteak.
- **AGI**
Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarteak.
- **ANAIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetatasuna.
- **ASPARGI**
Gipuzkoako parkinson elkarteak.
- **BEGIRIS**
Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarteak.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarteak.
- **DEBABARRENIKO GUTXITU FISIKOAK.**
- **KOXKA**
Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarteak.
- **KEMEN**
Pertsona Ezinduen Kirol Kluba.
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarteak.

BIZKAIA

- **ACCU**
Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Kolutisa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADELA**
Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ADELES**
Bizkaiko Lupus Eritematoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADEMBI**
Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak.
- **ADISA**
Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkarteak.
- **AHEVA**
Bizkaiko hemofiliaren elkarteak.
- **ALCER**
Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkarteak.
- **ARGIA**
Bizkaiko Ostomizatuen Elkarteak.
- **ASEBI**
Asociación Bizkaia Elkarte Espina Bífida e Hidrocefalia.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak.
- **AVAH**
Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkarteak.
- **BENE**
Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkarteak.
- **BIDARI**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkarteak.
- **BIZKEL**
Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltezuak.
- **CODISFIBA**
Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.
- **EFELA**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkarteak.
- **EMAN ESKUA**
Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ENEBIZIA ELKARTEA ZORROZA**
- **FRATER**
Elbarrituen eta Gaixoen Kristautau Elkarteak.
- **LEVAR**
Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarteak.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarekin egindako argitalpena.
Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



AURKIBIDEA

Orokorra

Enplegagarritasun-arau berria	4
Hauteskunde-legea erreforma	5
Elkartean: emakumeen lantaldea	6
“Gizarte-bono elektrikoan”, eta “gizarte-bono termikoa”	7
Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako lege-proposamena	8
Aparkatzeko txartela: Arartekoaren txostena	9

Araba


Etxebizitza eta garraioa, kontsulta nagusiak	11
Hitzak identitatearen eta kontsiderazioaren sortzaile: terminologia	12
Emakumea vs desgaitasuna world kafea	13

Bizkaia

Bizimodu Independenterako Kanpaina	15
Garraioa eta mugikortasuna Bilbon	16
Etxebizitzetan irisgarritasuna hobetzeko obretarako laguntzak	17
Udal-etxebizitza egokituak gazteentzat	17
Fekoorek #arrestopolis kanpaina babesten du	18
Bizkaiko saltegi publikoen irisgarritasunaren ebaluazioa	19
Fekoorek: zuzendaritza-karguen berrizatzea	19

Gipuzkoa

Haizearen Orrazia eta irisgarritasun unibertsala	20
Bizimodu eredu independentea bultzatzeko gida	21
Anoeta berria eta irisgarritasuna	22
Autobusen irisgarritasunari buruzko ikerketa-proiektua	23
Elkarbidean programa	24



EUSKO JAURLARITZA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ENPLEGAGARRITA- SUN-ARAU BERRIA PRESTATZEN ARI DA

Eusko Jaurlaritzak dekretu-proiektu bat prestatzea du aurreikusita, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunerako programa eta zerbitzuak eta Enplegu-zentro berezien Euskal Erregistroa arautzeko.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta ELKARTEANen artean hainbat bilera egin ditugu, jakiteko zer lan-ildo ari diren jorratzen arau berri horretan eta zer ikuspegi izango duen laguntza publikoak desgaitasuna duten pertsonen lan-integrazioa eta enplegagarritasuna bultzatzeko, eta kezkatuta geratu gara, ikusi baitugu arau horrek enplegu babestua indartu nahi duela eta iskin egin nahi diola enplegu arrunteko gizarteratzea babesteari. Horrela, inklusiboa ez den enplegu-eredu bat sendotuko da Euskadin, guk defendatzen dugunaren kontrakoa, hau da, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioaren kontrakoa.

ELKARTEANek, bai bere dokumentuetan eta bai Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak antolatutako foro, jardunaldi eta batzar guztietan, beti azaldu izan du enplegu arruntean integratzea dela modu bakarra gure eskubide hau bermatzeko: *“lan egiteko eskubidea, bizimodua ateratzeko aukera izan dadin, askatasunez aukeratu edo onartutako lanaren bidez, pertsona desgaituentzako irekiak, integratzaileak eta eskuragarriak diren lan-merkatu eta -inguruetan”* (Konbentzioko 27. artiku-

lua). Guk uste dugu enplegu arruntean sartzeko eta mantentzeko neurri sendoen bidez laguntzea eta horretarako konpromisoa hartzea bateragarria dela beste enplegu mota batzuk egotearekin (enplegu babestua edo laguntzadun enplegua), formula horiek egokiagoak izan baitaitezke zenbait beharrizan-profilentzat (desgaitasun intelektuala edo garapeneko nahiz gaixotasun mentala dutenentzat, bereziki), betiere enplegu arrunterako trantsizioa egiteko helburua badute.

Hala ere, azken urteetan, desgaitasuna duten pertsonentzako Euskadiko enplegu-programek enplegu babestua eta enplegu-zentro berezien jarduera babestu dituzte ia eskusiboki, eta Konbentzioa alde batera utzi dute, bai eta desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntera batzeko Euskal Autonomia Erkidegoko plana (2004-2006) ere, eta Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 ere bai, hor adierazten baita *“desgaitasuna duten pertsonen enplegu arrunterako sarbidea eta jarduera-tasa”* hobetu egin behar dela.


ELKARTEANen, Konbentzioarekin bat ez datozen eta gure kolektiboaren eskubideak urratzen dituzten lan-integrazioarako politikak eta araudiak salatzen jarraituko dugu. Eusko Jaurlaritzak Dekretu horren orientazioa berri planteatzea espero dugu, eta arautze berri hori egiteak ematen dion aukera baliatu dezala, bertan sar ditzan Eusko Legebiltzarrak 2017ko martxoaren 16an egindako akordioan eskatzen dizkion neurriak. Beste batzuen artean honako hauek:

- Inplikaturako agente guztiekin batera hausnarketa integrala egitea, eta berrantolaketa sakona egitea pertsona horien enpleguari buruz eta etorkizunean hartu beharreko neurriei buruz, bai kolektibo horren enplegagarritasuna hobetzeko eta bai enplegu arrunteko, autoenplegu eta enplegu publikoko edo enplegu-zentro berezien bidezko enpleguen kontratazioa sustatzeko.

- Neurri eraginkorrak martxan jartzea, dibertsitate funtzionala duten pertsonak enplegu-modalitate horretan integratzen aurrera egiteko, enplegu-modalitate hori lan-merkatu eta lan-inguru ireki, integratzaile eta eskuragarritzat hartuta.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonak lan-orientazioa eskuratu ahal izatea, gizarteko gainerako kideen modura eta baldintza-berdintasunean, bai Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez bai orientazio-lana nahiz bitartekotza-lana egiten duten erakunde kolaboratzaileen bidez, dibertsitate funtzionala duten pertsonen artean enplegu arrunta sustatzeko asmoz.
- Neurriak hartzea eta baliabideak ezartzea, dibertsitate funtzionala duten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzea bultzatzeko.
- Ikuskatze gehiago egitea erreserba-kuota betetzen dela ziurtatzeko, eta kontratu publikoak, diru-laguntzak edo zerga-onurak jasotzeko derrigorrezkoa izatea erreserba-kuota edo neurri alternatiboak frogatzea, indarrean dagoen legeria oinarri hartuta.

HAUTESKUNDE- LEGEA ERREFORMATZEA ONARTU DA, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN BOTO-ESKUBIDEA EZ URRATZEKO

Urriaren 18an, Diputatuen Kongresuak Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoa (LOREG) erreformatzea onartu du aho batez, desgaitasuna duten pertsonen boto-eskubidea urratzerik egon ez



dadin, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioari jarraituz.

Boto-eskubidea gure sistema demokratikoko oinarriko eskubide bat da, pertsona guztioi Konstituzioko 23. artikuluan aitortua, bai botoa emateko eta bai hauteskundeetara hautagai gisa aurkezteko.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioko 29. artikulua behartu egiten ditu administrazio publikoak “ziurtatzera pertsona desgaituek parte hartzeko aukera izan dezatela, oso-osoan eta eragingarritasunez, bizitza politiko eta publikoan, gainerakoen baldintza berberetan, zuzenean edo askatasunez hautatutako ordezkarien bidez, aukera horrek bere baitan hartzen duela pertsona desgaituek duten eskubidea eta aukera botoa emateko eta hautatuak izateko.”

Egin diren aldaketekin, LOREGen 3.1. artikuluko c) eta d) atalak desagertuko dira. Horietan esaten zen zilegi zela pertsona bati boto-eskubidea kentzea, baldin eta pertsona hori epai judizial irmo baten bidez ezgaitzat jotzen bazen eta epaian zehazki esaten bazen pertsona horrek ezgaitasuna zuela sufragio-eskubidea betetze-

ko; edota zilegi zela baimen judizialaz ospitale psikiatriko batean sartutako pertsona bati boto-eskubidea kentzea ospitaleratuta egon bitartean, baldin eta baimen judizialean zehazki esaten bazen pertsona horrek ezgaitasuna zuela sufragio-eskubidea betetzeko.

Era horretan, gaitasun-aldaketarako prozedura batean epaileek jada ezin izango diote inori boto-eskubidea kendu.

ELKARTELANen oso pozik gaude horrekin lortutako aurrerapauso historikoarekin, eta espero dugu Konbentzioaren aplikazioa indarrean dagoen legedi osora zabaltzea, bai eta legegitza-ekinbide guztietara ere, eta desgaitasun-kontuengatiko diskriminazio oro ordenamendu juridikotik kentzea.

Halaber, beharrezkoa iruditzen zaigu gure eskubidea bete ahal izateko irisgarritasun unibertsalaren baldintza guztiak bermatzea, Konbentzioak esaten duenari jarraituz, eta zehazki, 422/2011 Errege Dekretuak, martxoaren 25ekoak, desgaitasuna duten pertsonen bizitza politikoan eta hauteskunde prozesuetan parte hartzeko oinarrizko baldintzei buruzko araudia onartzen duenak, esaten duenari jarraituz. Beste batzuen artean, honako gai hauei buruzkoak:

- Hauteslekuetarako eta haien inguruarako irisgarritasun unibertsala.
- Hauteskunde-mahaietako kide izateko irisgarritasuna.
- Hauteskundeetako informazio instituzionale-rako irisgarritasuna.
- Hauteskunde-kanpainako ekintza publikoetarako eta hauteskunde-propagandarako irisgarritasuna.
- Hauteskunde-kanpainako ekitaldi publikoetan parte hartzeko irisgarritasun unibertsala.
- Posta bidez bozkatzeko irisgarritasun unibertsala.

2019ko foru- eta udal-hauteskundeei begira, ELKARTEANek baldintza horiek guztiak betetzeko eskatzen die udalei, foru-aldundiei eta

alderdi politikoei, desgaitasuna duen pertsona bakar bat ere ez dadin gelditu bere boto-eskubidea gauzatzeko aukerarik gabe.

ELKARTEAN- EK EMAKUMEEN LANTALDEA JARRI DU MARTXAN, POLITIKAN ETA ERAKUNDEETAN GEHIAGO ERAGINEZ DESGAITASUN FISIKOA DUTEN EMAKUMEEN ESKUBIDEEN DEFENTSAN AURRERA EGITEKO

Aurten, Emakumeen Lantaldea jarri dugu martxan ELKARTEANen. Bertan, hiru lurraldeetako erakundeetako desgaitasun fisikoa duten emakumeek hartzen dute parte.

Ekimen horrekin bultzatu nahi duguna da berdintasun-politiketan genero ikuspegia sartzea, eta genero-politiketan desgaitasuna sartzea. Horrez gainera, gure kolektiboaren eskubideen eta interesen defentsan ELKARTEANen egiten ditugun ekintzetan ere genero-ikuspegia jasotzea bultzatu nahi dugu; zehazki, aldarrikapen-ekintzetan, politikan eta erakundeetan eragiteko ekintzetan, eta gure jarrera eta proposamenetan.

Desgaitasun fisikoa duten emakumeok hainbat zailtasuni egin behar diegu aurre: oztopoei, irisgarritasun unibertsaleko baldintzarik ez egoteari, eta desgaitasuna duten gizonezkoekiko aukera-berdintasunik ez izateari; baina gainera, desgaitasuna eta generoa elkarteak are ahultasun handiagoa dakarkigu, bai eta diskrimi-

nazioa eta bazterketa-soziala jasateko arrisku handiagoa ere.

Hain zuzen, desgaitasuna duten emakumeek gizarateak eta kulturak eraikitako hainbat diskriminazio-kategoria pairatzen dituzte: desgaitasuna, generoa, bazterketa-soziala... Halaber, kategoria horien elkarreragina ez da independentea, baizik eta maila berekoa, eta desparekotasun soziala sistematikoki larritzea dakarte.

Emakumeen Lantalde horren barruan, ikuspuntu, kontzeptu eta lan-ildo desberdinak partekatzen hasi gara, lurralde bakoitzean egindako aurrerapausoak ezagutzeko, Euskadin desgaitasuna duten emakumeen eskubide eta interesen defentsan jarrera eta jardunbide bateratua eraikitzeke abiapuntu gisa.

Orain arte, Emakumeen Lantaldean jorratu beharreko lan-eremuak identifikatu ditugu (kontzeptuak adostea, diskriminazio-faktoreak, desgaitasuna duten emakumeen errealitatea testuinguruan jartzea, emakumeenganako indarkeria, lana, irisgarritasuna, garraio segurua, lan-bizitza eta familia bateragarri egitea, sexualitatea eta erreprodukzioa, gizarate-zerbitzuak, osasuna, zaintzaz arduratzen diren emakumeak, landa-eremuko bizitza, pobrezia-egoera...) Gai horien guztien artean, gure ekarpenak eta proposamenak egin ditugu desgaitasuna duten emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan eta desgaitasuna duten emakumeei ematen zaien

osasun-arretarako zentro eta gailuen irisgarritasunaren inguruan.

Talde horretan lanean jarraituko dugu, desgaitasuna duten emakumeen egoera agerian jartzeko, urratze-egorak eta diskriminazio-egoerak salatzeko, eta gure eskubide guztiak defendatzeko.

ELKARTEANeko Emakumeen Lantaldetik, ekimen honekin bat egitera animatzen ditugu desgaitasuna duten emakumeak, bertan parte hartu nahi izanez gero.

ESTATUKO GOBERNUAK MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ETXEBIZITZAK SARTU DITU “GIZARTE-BONO ELEKTRIKOAN”, ETA “GIZARTE-BONO TERMIKOAN” SORTU DU

2 018ko urriaren 7an jarri zen indarrean estatuko gobernuak onartu duen Trantsizio Energetikorako eta Kontsumitzaileen Babeserako Premiazko Neurrien Legegintzako Errege Dekretua.

Beste gai batzuen artean, Legegintzako Errege Dekretuak “gizarate-bono elektrikoaren” regulazioa aldatu du, eta “gizarate-bono termikoa” sortu du kontsumitzaile kalteberengan energia-pobretasuna leuntzeko, berogailurako, etxeko ur berorako edo sukaldarako energiari dagokionez.

Bi bonoak dira kontsumo energetiko eta elektrizitatearen faktorei egiten zaizkien beherapenak, eta kalteberak diren pertsonen aplikatzen zaizkie, baldintza batzuk betetzen badituzte.



Zehazki, gobernuak onartu duen lege-testuaren arabera, etxebizitza batean bigarren edo hirugarren graduko menpekotasuna duten pertsonak bizi badira, etxebizitza horrek aukera du gizarte-bono elektrikoa eskuratzeko; orain arte, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna zuten pertsonak baino ezin zuten eskuratu. Halaber, etxebizitza batean desgaitasunen bat duen pertsonaren bat edo bigarren nahiz hirugarren graduko mende-kotasun-egoera duen pertsonaren bat bizi bada, etxebizitza horretan ezingo da hornidura eten.

Era berean, aurreko gizarte-bonoko erregimenera atxikitako kontsumitzaileek epe luzeagoa izango dute, araudi berriaren arabera kontsumitzaile kaltebera direla justifikatzeko; hain zuzen ere, 2018ko abenduaren 31ra arte.

Gizarte-bono termikoa ere sortu dute, oro har, eta desgaitasuna duten pertsonentzat bono elektrikoaren baldintza berdinetan. Horren helburua da laguntzak zuzenean ematea, kontsumitzaile kalteberengan energia-pobretasuna leuntzeko, berogailurako, etxeko ur berorako edo sukalde-rako energiari dagokionez. Laguntzen kudeaketa eta ordainketa autonomia-erkidegoei dagokie; beraz, neurria ez da berehala aplikatuko, eta ez da espero 2019ko urtarrila arte ezartzea.

Berritasun horiez gain, desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak babesteko neurriak mantendu egin dira, 2017ko legean ezarrita da goen bezalaxe.

Kontsumitzaile kalteberentzat joko dira honako baldintza hauetako bat betetzen dutenak: errentarik ez edukitzea, familia ugaria izatea edo familiako kide guztiek gutxieneko pentsioa jasotzea.

Errenta baxuko familiazat hartuko dira honako hauek: OAEAPa halako 1,5etik beherako diru-

sarrerak dituztenak; familia-unitatean adin txikiko bat badago, OAEAPa halako bitik beherako diru-sarrerak dituztenak; eta familia-unitatean bi adin txikiko edo gehiago badaude, OAEAPa halako 2,5etik beherako diru-sarrerak dituztenak. 2018ko OAEAPa urteko 7.519,59 eurokoa da. Kopuru horiek 0,5 igotzen dira, desgaitasuna duen pertsonaren bat bizi bada etxebizitzan, eta urte honetatik aurrera, gobernuak egindako lege-aldaketarekin, menpekotasun-egoeran (bigarren edo hirugarren graduan) dauden pertsonak bizi diren etxebizitzetara ere aplikatuko da.

Gizarte-bonoa eta bono termikoa telefonoz, posta elektronikoz, postaz edo faxez eska daitezke, zuzenean erreferentziazko komertzializatzaile batekin harremanetan jarrita, haiek gizarte-bonoak eskaintzeko eta finantzatzeko betebeharra baitute.

Baldintzei, aurkeztu beharreko dokumentuei eta eskatzeko moduari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, hemen duzu esteka bat:

<http://www.bonosocial.gob.es/#como>

DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA INKLUSIORAKO LEGE-PROPOSAMEN- ERAKO EKARPE- NAK EGIN DITUGU ETA GURE IRITZIA AURKEZTU DUGU

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) erreformarako oinarrien inguruan lehen faseko lana egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Lege-proposamena aurkeztu zuen maiatzean.

2017aren amaieran, Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordearen aurrean agertu zen ELKARTEAN, eta bertan azaldu genuen DBEA



aldu beharra zegoela, gizarte-inklusiorako, parte-hartzerako eta bizimodu independentea garatzeko prozesuak errazteko horren beharra duen edozein pertsonari. Ikuspegi horretatik abiatuz, Lege-proposamena hobetzeko proposamenak bidali dizkiogu Eusko Jaurlaritzari, bere garaian jada eskatu genituen alderdi batzuk berriz formula ditzan, ez baitziren behar bezala jasota gelditu. Zehazki:

- Desgaitasuna duten pertsona guztientzat (% 33ko gradua edo gehiago badute aitortuta) desgaitasunagatik osagarri bat ezartzea; izan ere, lege-proposamenak % 65eko desgaitasun-gradua edo hori baino handiagoa duten pertsonentzat baino ez du proposatzen.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentara jasotzeko bizikidetzaren unitateari aplikatzen zaizkion alderdi eta osagarri guztiak aplikatzea Pentsiodunentzako Bermatutako Errentari (beren kargura adin txikikoak izateagatik edo bizikidetzaren unitateko beste ezaugarri batzuegatik osagarriak ematea).
- Pertsonen bizi-proiektu berri bat abiatzeko etxetik aldatu behar izan badute eta beren kargura adin txikikoren bat badute, edo bizikidetzaren unitatean desgaitasuna duten pertsonak badaude, aitortutako desgaitasun-gradua edozein dela ere, pertsona horiek salbuespeneko bizikidetzaren unitatea eratu dezaketela aitortzea, eta modu horretan, bizikidetzaren unitate bereizitza hartzea, DBEa eskuratu ahal izateko. Lege-proposamenaren testuak ez ditu barruan hartzen % 33 eta % 44 arteko desgaitasun-gradua aitortuta duten pertsonak. Desgaitasunen bat izanik bizimodu independentea hasi nahian edo desinstituzionalizazio-prozesu bat hasi nahian etxetik aldatu diren pertsonak ere gehitu behar dira.
- Bermatzea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako eta Inklusiorako sistema bateragarria izango dela egoitza-zerbitzu sozial, sanitario edo soziosanitario batean plaza izatearekin, desgaitasunen bat izateagatik erakunde batean dauden pertsonen benetan aukera izan dezaten gizarte-inklusioaren prozesuak edo bizimodu independenteko prozesuak hasteko.

- Gizarte- eta lan-inklusioa sustatzearekin harremana duten alderdi guztiak indartzea, lan arruntean integratzeko laguntza ematearen ildotik jarraituz.

ELKARTEAN bilera eta foro askotan ari da parte hartzen proposamen horiek defendatzeko, eta gure askoa da jarraitzea Eusko Jaurlaritzari eta alderdi politikoei eskatzen DBEaren erreformak kontuan izan dezala zer-nolako gaitzeskerak eragiten duen desgaitasunak. Izan ere, desgaitasunen bat duten eta pobrezia edo gizarte-bazterkerako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen oinarritako sarrerak bermatu behar zaizkie, gizartearen parte izan daitezen eta bizimodu independentea garatu ahal izan dezaten.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK, BERENTZAT GORDETAKO LEKUETAN APARKATZEKO TXARTELA BADUTE, ESKUBIDEA DUTE APARKALDI MUGATUKO GUNEETAN (TAO) ERE APARKATZEKO, ETA ESKUBIDE HORI BETE DADILA ESKATU DU ARARTEKOAK

Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelen titular askok kekek igozki dituzte arartekoari, batetik, udal-ordenantzak ez direlako egokitu 2016ko

araudira, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelak arautzen dituen era, ez baitaie aitortzen aparkaldi mugatuko guneetan (TAO) aparkatzeko eskubidea, eta bestetik, keak igorri dizkiote, aparkaldi mugatuko erregimena betearazteko kontrolaz eta zaintzaz arduratzen diren pertsonak argibide garbirik ez dutelako. Hori dela eta, ARARTEKOak Gomendio Orokorra onartu du (4/2018 gomendio orokorra, 2018ko urriaren 9koa) arau-hauste horiek ezabatzeke.

Zehazki, ARARTEKOak honako gomendio hauek ematen dizkie udalei:

- Gehiago luzatu gabe, egoki ditzatela gai horri buruzko udal-ordenantzak desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelari buruzko araudira.
- Ordenantza horietan argi eta garbi zehaztu dezatela, txartelari buruzko araudia betez, zer baldintzatan uzten zaien aparkatzen desgaitasuna duten pertsonentzako txartelaren titularrei aparkaldi mugatuko guneetan.
- Behar diren neurriak har ditzatela, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren titularrek beren eskubideak oztoporik gabe erabiltzea ahalbidetzeko.
- Aparkaldi mugatuko erregimena betetzen dela zaintzeaz eta arau-hausteak salatzeaz arduratzen diren agenteei eman diezazkietela eskubide horiei buruzko jarraibide argiak.
- Lan horretan erabiltzen den hizkera bat etor dadila araudiarekin, hau da, bazter ditzatela pertsona horiek zuzenean edo zeharka gutxiesten dituzten terminoak.


Horri dagokionez, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela arautzen duen 50/2016 Dekretua gogoratu behar da; izan ere, Dekretu horretan jasotzen denez, txartelaren titularrek eskubidea dute, txartela ibilgailuan ondo ikusten den toki batean jarriz gero (besteak beste), aparkaldi mugatuko guneetan aparkatzeko, behar beste denboraz. Eta hori horrela izanda, udal-ordenantzak egokitu egin behar

dira hori errespetatzeko. Araudi hori irten baino lehen udal-ordenantzaren batean jasotzen bazen desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren titularrek ordaindu egin behar dutela aparkaldi mugatuko guneetan aparkatzeko, posible da ez aitortzea doan aparkatzeko eskubidea, baina betiere bermatzen bada udalerririk horretan badela nahikoa aparkaleku erreserbatuta desgaitasuna duten pertsonentzat.

Alde horretatik, 50/2016 Dekretua osatzeko eta onartzeko prozesuan, ELKARTEANek eskatzen du batera daitezela, Euskadiko udalerririk guztietan, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren titularren gutxieneko eskubideak, eta udalerririk ez badila alderik egon. Beharrezkoa izango litzateke:

- TAO edo antzeko guneetan tarifa berezi bat ezartzea, aparkatzeko denbora mugatua izan ez dadin (gehieneko muga udalerririk bakoitzak ezarriko luke; 24 ordu, esaterako).
- Gune horietan doan aparkatzen uztea, parkimetroa irisgarria ez bada edo desgaitasuna duten pertsonentzat egokituta ez badago.
- Aldizka kanpaina publikoak egitea, txartelen eta toki erreserbatuen erabilera egokia sustatzeko.

ELKARTEANen espero dugu udalek Arartekoaren gomendio orokorrak betetzea eta udalerririk ez diren toki batean irizpideak bateratzeko lanean aurrera egitea.



ETXEBIZITZA ETA GARRAIOA, KONTSULTA NAGUSIAK

2018. urte honetan, *eginaren egínez* elkartearen banakako arreta-zerbitzuak 200etik gora kontsulta jaso ditu, aurrez aurre, telefonoz eta bitarteko telematikoen bidez, hala elkarteko kideenak, nola kideak ez diren pertsonenak eta beste erakunde pribatu eta publiko batzuenak.

Kontsulta horietan guztietan, ugariak eta askotarikoak izan dira planteatutako gaiak: enplegua, irisgarritasuna, prestazio ekonomikoak, administrazioen laguntzak eta diru-laguntzak, elkartearen jardueretan parte hartzea, kolektiboari edo *eginaren egínez* elkarteari lotutako alderdiei buruz informazioa eta prestakuntza jasotzeko premia eta abar.

Kontsultatutako gai guztien artean, bi nabarmendu dira hainbat aldiz urtean zehar: garraioa eta etxebizitza. Bi gai horiek desgaitasun-egoeran dauden pertsonekin duten loturaren alderdi ugariak maiz izan dira kontsulta-arrazoi.

Garraioari dagokionez, kontsulta eta erreklamazio ugari jaso ditugu, turismo-ibilgailu (taxi) bidezko hiriko garraio-zerbitzuei buruzkoak, autobus eta tranbia bidezko hiriko eta hiriarteko garraioari buruzkoak, bai eta gida-baimenak eskuratzeari, ibilgailuak egokitzeari eta mugimendu-urritasuna duten pertsonentzat erreserbatutako lekuetan aparkatzeko baimenari buruzkoak ere.

Hauek dira taxiari buruzko kontsulten arrazoiak:

- «Bono-taxi» deritzon prestazioarekin lotutako zailtasunak, laguntza hori arautzen duten arauak aldatu izanaren ondorio direnak. *eginaren egínez* elkarreak informazioa eman du, eta erreklamazio horiek bideratu ditu,

administrazio eskudunari helaraziz (kasu honetan, Arabako Foru Aldundiari); horri esker, irizpideak aldatzen parte hartu du, eta hori onuragarria izan da pertsona eta familia askorentzat.

- Taxi-zerbitzuak desgaitasun-egoeran dauden pertsonentzat duen kostu konparatu handia.
- «Eurotaxi» ibilgailu irisgarrien eskasia, batik bat eguneko une jakin batzuetan, gauean eta eguraldi txarra egiten duenean.
- Ibilgailu horiek eskuratzeko zailtasunak.
- Zerbitzua hobetzeko iradokizunak ere aurkeztu dira.

Gasteizko hiriko garraio-zerbitzuari buruz eta herrien arteko eta herrien eta hiriaren arteko hiriarteko garraioari buruz egindako erreklamazioen arrazoiak hauek dira:

- Ibilgailuetan irisgarritasun-elementuak ez gordetzea, leku irisgarri gutxi egotea eta
- Mugitzeko laguntza mota batzuekin, hala nola Scooter-ekin, garraibide horietara sartzeko zailtasuna.

Tranbiari dagokionez, ia kexa eta erreklamazio guztiak geltokien eta bonoak eta txartelak kargatzeko eta bidaia-txartelak eskuratzeko makinan irisgarritasunik ezari buruzkoak dira.

Etxebizitzari buruzko kontsultei dagokionez, eremu komunitario arkitektura-oztopoak kentzeko laguntzekin, prestazioekin eta prozesuekin lotutako auziek bultzatuta joan dira gizabakoak elkarera. Azkenaldian, behin eta berriz aipatu da kezka-iturri gisa etxejabeen elkarreetako buruen eta kontratatutako finken administrazioen eta gestorien arretarik eta lankidetzarik eza; kasu batzuetan, modu aktiboan oztopatu dute irisgarritasun-premiak dituzten auzokideek irisgarritasunaren premia planteatzea eta hizpidera ekartzea etxejabeen elkarrekin.

Gizarte-laneko zerbitzuan planteatutako beste auzi kezagarri bat alokatzeko etxebizitza iris-

garrien eskasia da –babes ofizialetik kanpo ia ez dago horrelako etxebizitzarik–. Horrek pertsona askori eragiten dio; izan ere, pertsona askok ez dituzte betetzen alokatzeko etxebizitza babes-
tuak eskuratzeko irizpideak, baina, aldi berean, ezin dute –edo ez dute nahi– babes ofizialeko etxebizitza bat jabetza-erregimenean erosi.

Etxebizitza babestuen parkea kudeatzen duten erakunde publikoek eskaerei –batik bat alokai-
ru-eskaerei– erantzuteko hartzen duten denbora luzeak ere kontsulta eta erreklamazio ugari sor-
tu ditu, eta oso larria bilakatzen da muturreko egoera batzuetan, baldin eta gizabanakoek mug-
itzeko zailtasun handia badute eta ezin badira etxetik irten beren kasa irisgarritasunik ezaga-



tik. Administrazio publikoek ez diete irtenbide-
rik ematen horrelako egoerei.

Gaur egun, badirudi bi gai horiek direla kolek-
tiboaren kezka-iturri nagusiak. Hori dela eta, *eginaren egínez* elkarteak bi lantalde sor-
tu ditu –bata etxebizitzari buruzkoa eta bestea
garraioari buruzkoa– kideen artean, auzi horiez
jarduteko, helburutzat hartuta aldarrikapenak
eta erreklamazioak planteatzea eta, aldi berean,
administrazioei hobekuntza-proposamenak he-
laraztea.

Lantalde horiek martxan daude. Beraz, nor-
baitek taldean sartu eta parte hartu nahi badu,
elkartarekin harremanetan jartzea besterik ez
du egin behar.

HITZAK IDENTI- TATEAREN ETA KONTSIDERA- ZIOAREN SORTZAILE. KONTZEPTUAK ETA TERMINOLOGIA EZTABAIDAGAI

Gizarteek, zeinek bere une historikoan,
ez dituzte beti modu berean kontsi-
deratu beren kide «desberdinak» eta
«desberdintasuna» bera. Horregatik, kide horiek
eta/edo haiek bizi duten egoera izendatzeko ter-
minoak ere aldatu egin dira arian-arian.

Giza zientzien arloetan egindako aurrerapau-
soek aukera eman dute ezagutza eskuratzeko
eta, horri esker, azalpen koherente eta zienti-
fikoek bidez argitzeko gaitz asko zergatik dau-
den, nola agertzen diren eta nola garatzen diren,
interpretazio mistiko, magiko edo erlijiosoak
baztertuz. Hori dela eta, garai batean –duela
gutxi edo aspaldian– konfigurazio organiko
ez-konbentzionaleko pertsonak baztertzea eta
haiekiko begirunerik eza edo iritzi txarra izatea
eragiten zuten arrazoietak asko desagertu egin
dira, eta gizartean ordura arte onartzen ziren
terminoek eta jardunbideek zilegitasuna galdu
dute.

Termino edo jardunbide horiek balioa edo zile-
gitasuna galtzea paradigma aldatzeko prozesua-
ren parte da, eta berekin dakar kolektibo horiei
erreferentzia egiteko beste termino eta kontside-
razio batzuk agertzeko edo sortzeko beharra.

Azken urteotan, konfigurazio organiko ez-kon-
bentzionaleko pertsonak izendatzeko eta haie-
taz hitz egiteko moduan gertatu diren aldaketa
sakon eta handien lekuko izan gara. Elbarriak,
desgaituak, desgaitasuna duten pertsonak, bes-

telako gaitasunak dituzten pertsonak... Azkenaldian, «dibertsitate funtzionala» terminoak hartu du indarra, eta lehen erabiltzen ziren termino guztien lekua hartu du.

Termino hori sortu dutenen ustez, premia jakin batek eraginda sortu da termino berri hori; hau da, terminologia bat zabaltzeko eta ezartzeko, konnotazio negatiborik edo gutxiesgarririk ez duena modu «arrunt eta ohikoaz» bestelako modu batean «funtzionatzen» duen elementu batez edo ugariz osatutako organismoa duten gizon-emakumei buruz.

Termino hori onarpena lortzen ari da kolektiboko pertsonen eta erakundeen artean, kolektibokoak ez diren pertsonen artean, administrazioetan, bai eta termino hori beste pertsona batzuek edo beren buruaz hitz egiteko erabiltzen dutenen artean ere. Dena den, zalantza ugari daude beronen esanahiaz eta konnotazioez. Hori dela eta, *eginaren egínez* elkarteari egokia eta oso beharrezkoa iruditu zaio eztabaida bat egitea arloari, kolektiboei eta konfigurazio organiko ez-konbentzionaleko pertsonen buruzko kontzeptuez eta terminologiak.

Horregatik, aldi berean bi prozesu daude abian, geuk geure burua izendatzeko eta besteek gu izendatzeko kontzeptuei eta terminologiari buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko. Elkarte barruan, eztabaida-prozesu bat egiten ari gara, eta hausnarketak Gasteizko udalak antolatutako parte hartzeko prozesu batean aurkezten ditugu. Prozesu horretan, *eginaren egínez* elkarteak ez ezik, desgaitasun-egoeran dauden pertsonen Arabako elkarte guztiek ere hartzen dute parte.

Azken finean, pertsona asko datoz bat: hizkuntzak errealitatea sortzen du, eta ematen eta jasotzen dugun kontsiderazioak eta tratuak lotura estua du errealitate horretaz egiten dugun kontzeptualizazioarekin.

EMAKUMEA VS DESGAITASUNA WORLD KAFA

Joan den azaroaren 6an, «EMAKUMEA VS DESGAITASUNA» izeneko World kafe saio bat egin genuen Gasteizen, Salburuako zentro zibikoan, *eginaren egínez*en 2018ko programazioko «Emakumea eta dibertsitatea» programaren barruan.

Jakina denez, elkartearen ekintza-ildo sendo eta nabarmenetako batek helburutzat du askotariko diskriminazioa agerian jartzea, salatzea eta horretaz kontzientzia harraraztea. Askotariko diskriminazioa baldintza pilaketa bat da, eta oztopo da erabateko herritartasuna eta autonomia pertsonala izateko.

Jarduera horretan, beste emakume batzuekin hitz egin ahal izan dugu gure konfigurazio organikoa dela-eta pairatzen ditugun zaurgarritasun-, diskriminazio- eta bazterkeria-egoeren errealitateaz, eta nabarmendu dugu emakumeon egoera gizonena baino okerragoa dela.

Diskriminazio hori agerikoa eta bistakoa da bizitzako eremu ugarietan:

- Partaidetzarako eremuetan.
- Prestakuntza espezializatua eta goi-mailako prestakuntza eskuratzeko aukeran.
- Laneratzeko aukeran eta lan-sustapenean.
- Soziazio-eremuan.
- Indarkeriaren eremuan, emakumeok arrisku handiagoa baitugu indarkeria pairatzeko.

Kolektiboko emakumeok, *eginaren egínez* elkarteak izan edo ez, askotan salatu dugu gizarteak eta erakundeek, bai eta beste emakume batzuek eta emakumeen mugimendu batzuek ere, ukatu eta ikusezin bilakatzen dutela gure alderdi sexuala —alegia, emakumeak garela, ukazinkin—. Gainera, uste dute gure egoera eta

gure konfigurazio organikoa direla-eta ez dugula merezi emakume osotzat aintzatetsiak izatea.

Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu desgaitasun-egoeran gauden emakumeon bizitzaren eta borrokaren berri zabaltzea, bai eta gure zailtasunen, indarren, gabezien eta ahalmenen berri ematea eta horiek agerian jartzea ere, eta, horri esker, kolektiboko emakumeen benetako egoeran sakontzea, eta lankidetzaren bidez ezagutza sortzea, ahalmena emango diguna eta baliagarria izango zaiguna aldarrikapen- eta kontzientziazio-jarduerak egiteko.

Helburu horrekin, 2018ko programazioan kolektibo barruko eta kanpoko emakumeen arteko topaketa bat antolatu genuen, World Kafe deritzon teknika erabiliz. Jarduera hori egiteak eta partaideen lankidetzak aukera eman digute kolektiboko emakumeek bizitzako eremu ugarietan zer arazo eta zailtasun dituzten ikusteko, bai eta zailtasun horiei aurre egiteko eta berauek konpontzeko edo gainditzeko zer erresilientzia duten ikusteko ere. Esperientzia horri esker, desgaitasun-egoeran dauden emakumeak eta egoera horretan ez daudenak aberastu egin gara gizabanako eta kolektibo gisa, estandarretatik eta estereotipoetatik –heini handiagoan edo txikiagoan– urruntzen diren konfigurazio organikoko emakume izatearekin lotutako bizipen ugariekin.

Azalpenek, elkarrizketek eta sortutako eztabaidak aukera eman dute desgaitasuneko/dibertsitate funtzionaleko egoeran dauden emakumeen kolektiboaren zailtasunen eta ahalmenen ikuspegia zabaltzeko, eta –partaideen hitzetan– norbanakoaren hausnarketa eta eztabaida kolektiboa bultzatu dituzte. Horrelako jardueren bidez –hots, lankidetzak kolektiborako tresnak, trebetasunak eta eremuak sustatzeko jardueren bidez–, aurrerapausoak ematen ditugu gaikuntza- eta ahalduntze-prozesuak bultzatzeko eta, horri esker, benetan aldatzeko desgaitasuneko/dibertsitate funtzionaleko egoeran dauden emakumeen

eta gainerako emakumeen arteko harremanen nondik norakoak, bai eta emakumeen eta gizonen arteko harremanen nondik norakoak ere, emakume eta gizon horiek kolektibokoak izan edo ez.

Hausnarketa kolektibo hori eta lankidetzaren bidez ezagutza sortzea lagungarria izango da gero eta kontzientzeagoak izan gaitzen beharrezkoa dela elkar ulertzea, enpatia izatea, lankidetzan jardutea eta sormen-indarrak batzea, geure burua afirmatzeko eta gizartearen aurrean herri-tarren funtsezko parte gisa aurkezteko, eta nahi dugun mundua eraikitzen laguntzeko gogoia eta ahalmena dugula jakinarazteko gizon-emakume guztiei, erakundeei eta sozializazio-bitartekoei.

WORLD KAFE

we can do it!

TYLER FEDER

MUJER VS DISCAPACIDAD
EMAKUMEA VS EZGAITASUNA

C.C. SALBURUA SALBURUA C.Ean.
MARTES 06 DE NOVIEMBRE AZAROAREN 06AN ASTEARTEAN
17.00 h. 17.00etan

Inscríbete en: Izena eman:
info@eginez.org o en el T. 945 225 516 info@eginez.org edo 945 225 516 Telefonoan

ORGANIZA / ANTOLATZALEA: COLABORA / LAGUNTZALEAK:

eginez
ORGANIZACIÓN DE MUJERES
CON DISCAPACIDAD EN VITORIA
GASTEIZ
ORGANIZAZIOAK HERRI-ERAKUNDEEN
BETTEREN ERAKUNDEA

VITORIA
GASTEIZ

BIZIMODU INDEPENDENTERAKO KANPAINA

FEKOOR buru-belarri ari da lanean, pertsonok nola bizi nahi dugun aukeratu ahal izan dezagun. Hori lortzeko, ezinbestekoa da ingurunea irisgarria izatea eta denok aukera berdinak edukitzea, bai eta laguntzak askotarikoak, egokiak eta nahikoak izatea ere. Horregatik, erakundeek eta gizarteari oro har eskatzen diegu bat egin dezatela gure Bizimodu Independentearen ereduaren proposamenarekin, eta jar ditzatela martxan horren garapena bermatzeko mekanismoak.

Hau aldarrikatzen dugu:

1. Gure bizitza nola bizi nahi dugun aukeratu ahal izatea, eta horretarako, ingurunea irisgarria izatea, denok aukera berdinak edukitzea, eta laguntzak askotarikoak, egokiak eta nahikoak izatea.
2. Gizartean bizitzeko eta parte hartzeko eskubidea edukitzea; izan ere, gure parte-hartzearekin gizartea aberastu egiten da, eta jasangarriagoa eta integratzaileagoa da.
3. Desgaitasunaz pentsatzeko modua aldatzea, bai eta hura ulertzeko eta bizitzeko modua aldatzea ere. Gainera, gizartean aurrera egitea, askatasunean eta berdintasunean oinarrituta Bizimodu Independentearen kulturantz.



BIZIMODU INDEPENDIENTEA HELBURU

4. Gure eskubideak aukera-berdintasunez erabiltzea eta gizartean modu aktiboan parte-hartzea.
5. Inguruneak irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua bermatzea.
6. Baliabideak, zerbitzuak eta laguntzak zabalak, askotarikoak, egokiak eta nahikoak izatea, eta horiek guztiak pertsona bakoitzaren beharizanetara egokitzea.
7. Pertsonen ahalduntzea, denok geure kabuz aukeratu, aldarrikatu eta jardun ahal izan dezagun.
8. Edozein diskriminazio motaren aurka gaude, zuzena zein zeharkakoa izan, eta behar diren neurriak har daitezela eskatzen dugu eta diskriminazioak salatzen ditugu, desgaitasuna dugun pertsonok komunitateko baliabideetarako (osasuna, etxebizitza, lana...) sarrera izan dezagun, baldintza berdinetan.

Horretarako, kontzientziazio-kanpaina bat jarri dugu martxan, “Ni aldaketaren eragile, Bizimodu Independentea helburu” deiturikoa, pertsona guztiek izan dezaten modu independentean bizitzeko eta askatasunez aukeratutako bizitza-proiektua garatzeko eskubidea.



Helburua FEKOOREk proposatzen duen Bizimodu Independentearen Eredua zabaltzea eta gizarteratzea da. Metodologia berritzaile horren bidez, diskriminazioa saihestu nahi da, dependentzia prebenitu, eta gaitasunak, inklusioa eta gizartean parte-hartzea indartu.

Kanpaina urriaren 24an aurkeztu zen Bilboko Bizikidetasun Plazan, Bilboko alkate Juan Mari Aburtoren babesarekin; hain zuzen ere, hura izan da aldarrikapen honi atxiki zaion lehen pertsona. Datozen hiletan, FEKOOREk ahalik eta erakunde eta gizarte-eragile gehienei helaraziko die Bizimodu Independentearen Eredua, helburu argi batekin: “irisgarritasunaren, mugikortasunaren, berdintasunaren eta Bizimodu Independentearen alde gizartea aldatzen jardungo duten eragileen sare bat sortzea”.

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA BILBOKO UDALERRIAN

Hona hemen FEKOOREk **Bilboko Udalar**i proposatu eta udalak jada martxan jarri dituen edo laster jarriko dituen zenbait ekimen, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko:

1. Bilbubusen araudi berrian arau hau gehitu da: **mugitzeko gurgildun aulkia behar duten mugikortasun urriko pertsonen laguntzaileek txartela doan izango dute**; FEKOOREk egindako proposamen hori, gainera, Bizkaiko Garraio Partzuergoak onartu zuen, eta hedagarria da beste garraio-zerbitzu batzuetara, hala nola Metro Bilbao, Bizkaibus, Euskotren eta tranbia-zerbitzuetara.
2. Autobus guztiek izango dute eskuzko arrapala bat, automatikoa hondatzen denerako.
3. Aurten markesinak pixkana-pixkana aldatzen hasiko dira, mugikortasun urria duten pertsonak errazago igo eta jatsi ahal izan daitezen garraiobidera.
4. Abenduaren 1etik aurrera, Bilboko Udaleko

35 igogailuak eguneko 24 orduetan egongo dira martxan, eta ez goizeko 6etatik gaueko 12etara soilik, orain arte gertatzen zen bezala.

5. Taxien ordenantza berriak, **Bidaiariak kottzez bidaiatzeko Bilboko hiri barruko garraioaren Ordenantza** izenekoak, urriaren 23an indarrean jarri zenak, honela dio: autotaxiek irisgarritasunaren printzipioa bete behar dute, eta, beraz, ibilgailu egokituei buruzko araudia bete behar dute. Taxia gidatzen dutenek lehentasuna emango diete mugikortasun urria duten pertsoneri, eta lagundu egingo dute.

Gainera, hauek dira aurreikusten diren beste neurri batzuk, urrian Alfonso Gil Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Zinegotziarekin izandako bileraren ondoren hitzemandakoak:

1. Mugikortasun Urriaren Europako Txartela duten pertsonak TAOk gune guztietan aparkatzeko aukera izatea arautuko duen Aparkamendurako ordenantza berria idaztea Bilbon.
2. Lur azpiko aparkalekuetan sarbide-lehentasuna izateko eta partzela eskuratzeko lehentasuna izateko lanean ari gara. Berritasun gisa, baldintza berak aplikatuko zaizkie mugikortasun urriko pertsonen ardura duten ibilgailujabeek.



3. Udal Aparkalekuen Irisgarritasun Planak hobekuntzak egitea aurreikusten du udal-aparkalekuetan; batez ere, haietan sartu eta irten ahal izateko hobekuntzak egin nahi dira: igogailuak jarri, ateetan automatismoak jarri, zoladurako gorabeherak ezabatu, eta barruko ibilbide seguru eta irisgarriak diseinatu. Halaber, 227 partzela berri egingo dira mugikortasun urria duten pertsonentzat.
4. Semaforoen denborak oinezkoen igarotzera moldatzea, eta aldizkakotasun-denborak gal-tzadaren zabalera.
5. Udalaren beste ekimen bat hiri-baratzeetan desgaitasuna duten pertsonen lehentasuna izatea da. Errekalden dauden 24 lursailetatik 2 dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat dira, eta bertara beren ibilgailuarekin sartu ahal izateko prestatuta daude. Otxarkoagako 56 lursailetatik 3 desgaitasun fisikoa edo intelektuala duten pertsonentzat gordetzen dira (horietatik 2k sarrera zuzena dute ibilgailuentzat). Gainera, horietan guztietan, eta etorkizuneko proiektu guztietan (Artxandako baratzeak), irisgarritasun-arazoak konpondu dira, lursailetakoko bazterrak behertuz, alda-geletarako sarbide-arrapalak hobetuz, armai-ruak baxu jarritz...

ETXEBIZITZETAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO OBRETARAKO LAGUNTZAK

Etxebizitza Sailak laguntza berriak jarriko ditu martxan jabekideen erkidegoetan irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko. Baliabide gabeko pertsonen emango zaizkie, itzuli beharrik gabekoak eta sarreraren araberakoak izango dira, eta erkidegoaren berritze-lanetarako aurrekontuan dagokien kuota osotasunean ordaintzera ere hel daitezke.

Ordainetan, laguntzaren onuradunak eta haren oinordekoek ezingo dute etxebizitza 10 urtean saldu. Baldintza hori hausten badute, diru-laguntza osorik itzuli beharko dute.

Neurri horri esker, berriz jarriko dira martxan baliabide faltagatik erkidego askotan urteetan gelditu dauden irisgarritasun-proiektuak; baina FEKOOREk uste du beharrezkoa dela beste neurri batzuk indarrean jartzea, izapideengatik asko atzeratzen diren epaiketa-enbazeak bizkortzeko; izan ere, sarritan, inplikaturako pertsonak hil egin dira konponbidea aurkitu baino lehen.

Arazo hori neurri batean konpontzeko, 2008an FEKOOREk Ordenantza proposamen bat garatu zuen Etxebizitzetarako Irisgarritasuna Sustatzeko. Horren helburua zen irisgarritasuna hobetzeko egin beharreko obrak (igogailuak edo arrapalak jartzea) trabarik ez izatea, bai eta herri-jabaria okupatu ahal izatea ere, obra justifikatuta dagoenean eta beste irtenbiderik ez dagoenean.

2010ean, FEKOOREn beste ekimen bati esker Kongresuak aho batez onartu zuen EAJk aurrekizutako mozio bat, Kode Zibila eta Jabetza Horizontalaren Legea aldatzeko eskatzen zuena, etxebizitzetako irisgarritasunerako obrak erraztu ahal izateko.

Jabetza Horizontalaren Legea aldatzeko proiektuaren xedea da, batetik, irisgarritasun-obrak egiteko ez dadila beharrezkoa izan gehiengoaren aldeko botoa, eta bestetik, jabekideen erkidegoetan arauen batek eragotzi egiten badu edozein jabek oztopo arkitektonikoak kentzearen elementu mekanikoak erabili ahal izatea, arau hori baliogabetzat jotzea.

BILBOK UDAL-ETXEBIZITZA EGOKITUAK IZANGO DITU GAZTEENTZAT 2020RAKO

Bilboko Udala 66 apartamentu txikiko (25 eta 40 metro² artekoak) eraikin bat ari da egiten, alokairuan jartzeko eta gazteen emantzipazioa bultzatzeko.

Eraikina Ametzolako birbilgunearen ondoan eraikiko da, eta 160 etxebizitza izango ditu; ho-

rietatik 66 lehenengo fasean eraikiko dira, bai eta aparkatzeko 160 plazak ere (120 autoentzat eta 31 motorrentzat).

Proiektuak badu mugikortasun urria duten pertsonentzat egokitutako apartamentu-eredu bat ere, 51 m²-koa, eta beste apartamentuek 30 eta 40 m² artean izango dute. Lehen fasean 6 apartamentu egokitu eraikiko dira.

Lehen bi solairuek 20 etxebizitza izango dituzte, eta horietako bi egokituak izango dira; hirugarren solairutik seigarrenera 36 etxebizitza egongo dira, eta horietako lau izango dira egokituak.

Kontratuak txandakakoak izango dira, eta gehenez ere bost urteko iraupena izango dute. Zuzkidura-etxebizitzak izango dira, hau da, pertsona batentzat edo birentzat izango dira, eta instalazio eta zerbitzu komunak izango dituzte.

Bilboko Udalak sustatu du ekimen hori, gazteek emantzipatzeko aukera izan dezaten. Lehenengo fasearen eraikuntza 2020ko lehen hiruhilerako dago aurreikusita.

FEKOOREK COCMFE-REN #ARRESTOPLIS KANPAINA BABESTEN DU

FEKOOREn mugimendu asoziatiboa azaroaren 28an Bilboko Moyua Plazan kontzentratu zen, COCEMFEren #arrestopolis kanpaina babesteko; mugikortasun urriko pertsonak bizi diren etxebizitza-eraikinetan irisgarritasun unibertsala egon dadila aldarrikatzea da kanpaina horren helburua.

Ehun pertsonatik gora batu ziren Bilbon, arazo hori amaiarazteko neurri eraginkorrak aldarrikatzeko eta eskubide hori gauzatu dadin konpromiso politikoa eskatzeko.

Aldarrikapenen artean, besteak beste, Jabetza Horizontalaren Legea aldatzeko eskatzen dugu, jabekideen erkidegoetan gastuak ordaintzeko

egungo 12 kuotako muga ken dadin, eta horrela, beti izan dadin derrigorrezkoa irisgarritasun obrak egitea, baldin eta mugikortasun urria duten pertsonak edo 70 urtetik gorako pertsonak eskatzen badute; izan ere, obra horiei aurre egin behar zaie, jabekideen erkidegoek beste obra batzuei aurre egiten dieten modu bertsuan, hala nola egitura-baldintzek, estankotasunak, bizigarritasunak eta segurtasunak eragindako obrei.

Gaur egun, Jabetza Horizontalaren Legeak dio irisgarritasun unibertsala ziurtatzeko obrak derrigorrezkoak izango direla, eta ez dela Jabekideen Batzarraren aurretiko hitzarmenik behar, baldin eta etxebizitzaren jabeak eskatzen badu eta baldin eta bertan desgaitasunen bat duen pertsonaren bat edo 70 urteko pertsonaren bat bizi bada, edo bertan lan egiten badu edo borondatezko zerbitzuak burutzen baditu.

Halaber, eskatzen dugu jabekideen erkidegoentzako laguntzak handitzea, egungoak ez baitira nahikoak irisgarritasuna eta etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzeko. Egokitzapen-obren % 10ek soilik jasotzen du administrazio publikoaren laguntza; gainerakoak erkidegoaren edo errentarien diruarekin ordaintzen dira.

Federazioaren ordezkariak eskaera horien gutuna eman zioten Gobernuaren Bizkaiko Ordezkaritzari, desgaitasunak dituzten pertsonak gizartean parte-hartze osoa eta bizitza independentea izan dezaten lortzeko.



“SOMOS ACCESIBLES/IRISGARRIAK GARA” KANPAINAK BIZKAIKO SALTEGI PUBLIKOEN IRISGARritASUNA EBALUATU DU

FEKOOREk herri-mugimendu bat aktibatzeko asmoa du: irisgarritasun unibertsalarekin, pertsona guztientzako diseinuarekin eta aukera-berdintasunarekin konprometuta dagoen herri-mugimendu bat, hain zuzen ere.

Testuinguru horretan, hau da **“Somos Accesibles/Irisgarriak Gara”** kanpainaren helburua: gure herri eta hirietako irisgarritasunaren alorrean eta pertsona guztientzako diseinuaren alorrean jardute ona ebaluatzea eta aitortzea.

2015 eta 2018 artean 743 ostalaritza-establezimendu ebaluatu ziren Bilboko Alde Zaharrea, Deustun eta Indautxun, eta Barakaldon, Galdakaon eta Getxon. Kanpaina modu progresiboan zabalduko da Bizkaiko beste herri batzuetara, herritarren sare handi bat aktibatzeko irisgarritasunaren, mugikortasunaren, aukera-berdintasunaren eta Bizimodu Independentearen alde.

Kanpainaren txostenak dio irisgarritasun-legea ez dela betetzen askotan, baina establezimentuen interesak gora egin duela, haien lokalak irisgarriago izan daitezzen.

743 lokaletatik 43k bakarrik (% 6) betetzen ditu aztertutako hiru irizpideak (sarrera irisgarria, komun egokituak, barneko bizigarritasuna).

Aztertutako 464 saltegietatik 108k soilik (% 23k) betetzen dituzte pertsona guztientzako diseinuaren eta irisgarritasun unibertsalaren irizpideak.

FEKOOREK ZUZENDARITZA-KARGUAK BERRITU DITU

O hiz kanpoko batzar nagusira deitutako FEKOOREko bazkideek balantze ekonomikoa eta erakundearen kudeaketa-plana berretsi zituzten, eta ordezkaritza-organoak berritu zituzten:

PRESIDENTETZA:

BIZKEL, José Antonio Espinosa Pérez jauna.

Presidenteordetza:

ACCU, Alfredo Gómez Rodríguez jauna.

Idazkaritza:

BENE, Marcelino Fernández jauna.

Diruzaina:

Asociación Vida Independiente-Enebizia Elkarte. Norma Lapeyre Valdés andrea.

Idazkariordetza:

Amalia Moya andrea. Frater.

Batzordekideak:

ADELA, Juan José Aja Hazas jauna. ADELES, Luis Flores Encinas jauna. ADEMBI, M^a Ángeles Lara andrea. ADISA, Serafin Iglesias jauna. AHEVA, Roberto Pérez Aledo jauna. ALCER, Blanca Arana Ariznabarreta andrea. ARGIA, M^a Eugenia Ibero andrea. ASEBI, Zuberoa Liendo andrea. ASPANOVAS, Pedro Ruiz del Rio jauna. AVAH, Ana Bravo andrea. BIDARI, Teresa Amalia Martínez andrea. CODISFIBA, Rodrigo González Besa jauna. EFELA, Jone Gardoki Arriortua andrea. EMAN ESKUA, Antonia Gamero Borrego. LEVAR, Pedro Manuel Corona Raya jauna.



HAIZEAREN ORRAZIA ETA IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

elkartuk denbora-tarte luzean hainbat ekimen egin ditu Haizearen Orrazirako irisgarritasuna eskatzeko, eta Donostiako Udalak hainbat proposamen tekniko aztertu ditu denbora honetan. Azkenik, horien guztien ondoren, Udalak publikoki jakinarazi du irisgarritasun hori bermatzeko esku-hartze bat egingo duela.

Zehazki, 2019ko udazkenean ekingo diete lanei: galtzada-harriak eskuz leunduko dituzte haien zimurtasuna gutxitzeko eta multzoaren beheko plataforma guztian jundurak beteko dituzte, modu horretara pertsona guztiek monumentu-multzoan segurtasunez eta duintasunez mugitzeko aukera izan dezaten, eta eskulturak dau den ingurunera bertaratzeko modua ere izan dezaten.

Federazioak azken urteotan planteatutako eskariei erantzuten die soluzio horrek; izan ere, behin eta berriz salatu du hiriaren gune publiko hain esanguratsu

horrek urratu egiten dituela herritar askoren eskubideak. Hori dela eta, 2016ko urriaren 26an idatzi bat igorri zion Udalari, bere gain har zezan *“jabetza publikoko espazio edo ondasun honen gainean dagokion ardura edo eskumena, gai honetan esku hartzen duten eragile guztien arteko elkarrizketaprosesua gidatzeko, eta horren bidez soluzio bat adosteko herritar guztiek espazio eta inguruneetara iristeko duten eskubidea bermatze aldera”*.

Azken batean, elkartuk begi onez ikusten du hartutako erabakia eta espero du esku-hartzeak ingurunearen irisgarritasuna bermatuko duela; hau da, herritar guztiek baldintza beretan bisitatu eta gozatu ahal izango dutela kultura, hirigintza eta turismo aldetik balio paregabea duen inguru honetaz. Orobat, espero du esku-hartze hau bultzada bat izatea, ondasun, zerbitzu eta espazio guztietan irisgarritasun unibertsala sustatzeko neurriak ezartzeko.





BIZIMODU EREDU INDEPENDENTEA BULTZATZEKO GIDA

elkartu 2016an aurkeztu zuen publikoki “Gipuzkoan Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Egoerari eta Beharriazane buruzko Azterketa-diagnostikoa”, eta lan horretan jasotzen den ondorioetako bat da Bizimodu eredu independentea bultzatu behar dela. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikuluan aitortzen da eredu hori.

Horretarako, beste hainbat ekimenen artean, “Desgaitasun fisikoaren esparruan bizimodu independentea bermatzeko garatu beharreko politika inklusiboak eta esku-hartze soziala diseinatzeko gidaliburua” landu dugu. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari profesional moduan diharduten pertsonentzako tresna baliagarria izatea da gidaliburu honen asmoa. Lan honetan, besteak beste, gai hauek jorratzen dira:

- Zer da Bizimodu eredu independentea?

- Zein da bizimodu eredu independentearen helburua?
- Non aitortzen zaie bizimodu eredu independentea desgaitasun fisikoa duten pertsoneri?
- Zeintzuk dira bizimodu eredu independentea eraginkor egiteko elementu nagusiak?

Tresna honen helburuak hiru dimentsio barne hartzen ditu:

- Pertsona guztien aukera berdintasuna eta gizartea inklusiboagoa izatea bermatzen duen eraldaketa sozialean aurrera egitea.
- Desgaitasun fisikoaren esparruan inklusio soziala oinarri duten politika publikoak diseinatzea.
- Bizimodu independentearen ereduaren diseinua, proiektzioa eta garapena ardatz dituen esku-hartze paradigma berri bat sustatzea.

Gida eskuragarri dago gure webgunean (www.elkartu.org), eta espero dugu Oinarriko Gizarte Zerbitzuentzako lan-tresna bihurtuko dela, batez ere desgaitasuna duten pertsoneri zuzendutako esku-hartzeak diseinatzeko, eta, modu horretara, bizimodu independentea izateko haien eskubidea gauzatzeko; izan ere, “persona oro-

ren eskubidea da, beren existentzia, bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duen erabakitzeak ahalmena izatea, erabakitzeak eskubidea erabilita. Horrela, gainerako pertsonen baldintza berdinetan biziko da gizabanako oro, aurrez ezarritako bizi sistema jakin batean bizitzera derrigortuak izan gabe”.

ANOETA BERRIA ETA IRISGARRITASUNA

Azken hilabeteotan Anoeta estadio berriko lanen jarraipena egiten aritu gara, obra horietan eskumena duten erakundeekin elkarlanean, instalazioaren irisgarritasun-baldintzak betetzen direla bermatzeko eta futbol-partidez eta antolatutako beste ekitaldiez berdintasun-baldintzetan gozatzeko aukera emango duten beste neurri batzuk hartu direla egiaztatzeko.

Egindako bileren ostean eta elkarturen eskura jarritako dokumentazioa aztertu ondoren, irisgarritasun unibertsalaren arloan hartutako neurri hauek nabarmendu daitezke:

- 20 igogailu baino gehiago jarri dira kirol-instalazio osoan.
- Harmailetan gurgildun aulkien erabiltzaileentzako guneak egokitu dira, eta laguntzaileentzako eserlekuak aldamenen; orobat, legean ezarritako espazioen erreserba sobera hobeto bete da.
- Aztertutako komunak egokiak dira, nahiz eta badiren hobekuntza txiki batzuk egiteko (planteatu dira jada); komun guztiek kabina irisgarria dute.
- Tabernen eremuan dauden barrek eremu bat dute gurgildun aulkien erabiltzaileentzat.
- Sarrerak erosteko txarteldegi berriak 0 kotan egokituko dira.

Federazioak, oro har, balorazio positiboa egin du irisgarritasunaren arloan hartu diren neurriez, baina zenbait proposamen planteatu ditu, horien bidez pertsona guztiek Anoeta estadio

berriaz gozatzeko duten eskubidea hobeto eta gehiago bermatzeko. Hauek dira proposatutako neurriak:

- Orokorrean seinaleak hobetzea.
- Mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako eserleku gehiago egokitzea, erreserbatutako eremuak adina, gutxienez.
- Estadio guztiko eskailerak nabarmentzea; izan ere, gainerakoan arriskua sor daiteke ikusmen gutxitua duten pertsonentzat.
- Estadioaren barnean eta kanpoan noranzkoa adierazteko lerro gidariak jartzea ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat.
- Kanpoko urbanizazio osoan hobekuntzak egitea.

Azken batean, elkartuk begi onez ikusi du zernola landu den Anoeta estadio berriaren irisgarritasun unibertsala, eta, bide berean, lanean jarraituko du erakundeekin lankidetzan, planteatutako neurri horiek ezar daitezen, modu horretara Gipuzkoak erreferentziatzeko kirol-instalazioa izan dezan irisgarritasun unibertsalaren eta inklusioaren ikuspegitik.



AUTOBUSEN IRISGARRITASUNARI BURUZKO IKERKETA- PROIEKTUA

elkartu Gipuzkoako autobus garraio publikoaren irisgarritasun-baldintzei buruzko ikerketa-proiektu bat gauzatu du.

Egitasmo honetan, desgaitasuna duten pertsonen parte-hartze eta eginkizun nabarmena izan dute: autobusetan joan-etorriak egin dituzte, ondoren datuak jasotzeko fitxak landu dituzte eta datu horiek bateratzeko eta horien gainean eztabai-datzeko tailerretan parte hartu dute.

Zehazki, desgaitasuna duten 21 pertsonak hartu dute parte, eta 44 autobus aztertu dituzte, horietatik 29 hiriartekoak (%66) eta 15 hiri-autobusak (%34).

Proiektu honen bidez, desgaitasuna duten pertsonen egunerokoan autobusa erabiltzeko zer zailtasun izaten dituzten jakin nahi izan dugu (geltokiak, hiriarteko nahiz hiriko autobusen irisgarritasuna, arrapalaren erabilera, erreserbatutako eremua, barneko mugikortasuna, deitze-ko oharra, ohar akustikoa ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat...), baita langileek desgaitasuna duten pertsonekin zer-nolako tratua duten ere. Gure webgunean eskura dago proiektua.

Hauek dira azterlanean jasotako datu nagusiak:

- Bidaien %16an gertakariren bat izan da, eta, horren ondorioz, erabiltzaileek ezin izan dute

ibilbidea egin.

- Jasotako gertakarien %71n, autobus-konpainiak ez dio inolako erantzunik eman sortutako zailtasunari eta ez du beste aukerarik eman erabiltzaileak bidaiatu ahal izan zezan.
- Baskulazioari dagokionez, aztertutako bidaien %16an baino ez da erabili mekanismo hau, eta horietan arrisku-egoerak sortu dira gurpildun aulkien erabiltzaileentzat eta mugikortasun murriztua dutenentzat.
- Autobusen %52an autobusen zorua ez da irristagaitza.
- Gurpildun aulkien erabiltzaileen %25ek baino ez du adierazi erreserbatutako eremuan arazorik gabe lekua hartu duenik eta modu egokian bira eman ahal izan duenik.
- Gurpildun aulkien erabiltzen %45ek jakinarazi du arrapala irekitzeko txirrin ohartarazlea ez dagoela aktibatuta.
- Egindako bidaien %47an, desgaitasuna duten pertsonen arazoak izan dituzte txartela balioztatzeko, eta %18k ezin izan du autobus-txartela bere kabuz balioztatu.

Datu hauek egiaztatu egiten dute mugikortasunaren esparruan beharrezkoa dela irisgarritasun unibertsala sustatzeko neurriak bultzatzea, modu horretara pertsona guztiak garraio publiko berdintasun-baldintzetan erabili ahal izan dezaten. elkartuk lanean jarraituko du datozen hilabeteetan proiektuaren datuak eta ondorioak eskumena duten erakundeekin partekatzeko, eta dagozkion politikak eta neurriak hartzeko eskatuko du.



ELKARBIDEAN PROGRAMA

Amaitu da Elkarbidean programaren 2018ko edizioa, eta guztira bost oporraldi-txanda antolatu dira, ondoko tokiak:

- Calpe (Alacant), ekainaren 11tik 25era.
- Salou (Tarragona), ekainaren 30etik uztailaren 14ra.
- Berlin (Alemania), uztailaren 23tik 30era.
- Salou (Tarragona), abuztuaren 11tik 25era.
- Madril (bidaia kulturala) irailaren 8tik 24ra.

Guztira, desgaitasuna duten 78 pertsonak bidaiatu dute txanda horietan; bidaiari horietatik %75etik gorako desgaitasuna zuen eta %44,9k gurpildun aukia erabiltzen zuen.

Parte hartu duten pertsonak oso balorazio positiboa egin dute programaz, eta, oro har, alderdi guztien (ostatuak, garraioa, zerbitzuak, laguntza pertsonalak, etab.) iritzi ona agertu dute. Orobat, ebaluazio-tailerretan eta galdetegietan bidaia

hauek hobetzen lagunduko duten hainbat gai planteatu dituzte.

Federazioa aurki hasiko da 2019ko Elkarbidean programa prestatzen. Martxoan jakingo dituzue nondik norako guztiak. Bien bitartean, ohiko bideak baliatu ditzakezue (webgunea, posta elektronikoa, telefonoa, posta arrunta, gizarte-sareak, etab.) zuen iradokizunak eta proposamenak egiteko, eta kontuan hartuko ditugu hurrengo edizioetarako.

